

# Errealitatearen gizarte eraikuntza

(Berger eta Luckmann)

Irakasgaia: Ezagutzaren Soziologia  
Ikaslea: **Iker Iraola Arretxe**  
Soziologia, 3. maila  
2004ko Apirilaren 28a

## **1. Sarrera**

Peter L. Berger eta Thomas Luckmannek *La construcción social de la realidad*<sup>1</sup> obraren sarrerari jartzen dioten izenburua adierazgarria da: Ezagutzaren soziologiaren arazoa. Sarrera honetan liburuaren bi oinarritzko tesiak planteatzen dituzte:

-errealitatea sozialki eraikitzen dela eta

-ezagutzaren soziologiaren xedea prozesu hori nola burutzen den ikertzea dela.

Era honetan, liburuak bi kontzeptu klabe ditu: errealitatea eta jakintza. Autoreen aburuz, lehena independente bezala ulertzen ditugun fenomenoek kualitate bat da; jakintza, berriz, fenomeno jakin bat erreal denaren ziurtasuna da. Errealitatea, hortaz, ezaugarri bat da (gauza bat erreal bezala definitzea edo ez), eta jakintza errealitate horri dagokion oharpena izango litzateke, gauza bat erreal dela ohartzea.

Autoreak planteamendu honetatik abiatuz burutzen dute beraien azalpen guztia. Honela, ezagutzaren soziologia gizartearen maila teorikoaren jakintzaz soilik arduratu dela kritikatu egiten dute, gizarte bateko jakintza intelektual handien jakintzara mugatuz. Beraien ustez, jakintza hau garrantzitsua da, baina gizarte bateko jakintzaren parte bat den heinean (eta ez zatirik handiena). Horrela, ezagutzaren soziologiaren aztergaiak gizartearen ezagutza *guztia* izan beharko du eta, bereziki, eguneroko bizitzaren jakintza. Hau da, gizartean jakintzat ematen dena, askotan sen arruta dena, jakintza bezala kontsideratzen ez dena... da ezagutzaren soziologiaren aztergai inportanteena.

## **2. Eguneroko bizitzaren jakintza**

Gizakiontzat errealitatea zerbait koherentea da. Eguneroko bizitzak errealitate bat eskaintzen dio gizakiari, honek interpretatu egiten du eta subjektiboki zentzua ematen dio egoera horri. Ondorioz, eguneroko bizitzako errealitatea emantzat ematen da, ez da kuestionatzen. Finean, naturalizazio prozesu bat ematen da, zeinaren bidez gizarte errealitatearen aspektu sozial hori ezkututzen den, errealitate natural bezala agertuz. Argi dago mekanismo hau beharrezko dugula gizakiok, ezingo baikenuke bizi guztia kuestionatuz, ohetik altxatzen garenetik jaio berriak izango bagina bezala egunari

---

<sup>1</sup> BERGER eta LUCKMANN, *La construcción social de la realidad*, Buenos Aires, Amorrortu, 2003.

ekin... Gizarte bizitzarako, hortaz, ezinbestekoa da objektibazio prozesu hau, baina aipatu daiteke sen arruntean zabaldurik dauden eta naturaltzat hartzen diren zenbait gizarte errealitate objektibo edo natural bezala agertzen zaizkigula, aldaezinak izango bailiran, nahiz eta objektiboki hala ez izan. Baina Berger eta Luckmann egunerokotasunean mekanismo honek nola eragiten duen aztertzeraz mugatzen dira.

Objektibazio horren eraginez sen arrunta sortzen da, finean gainontzeko gizakiekin konpartitzen dugun mundu intersubjektiboa dena. Hau da, guztiok (inkontzienteki) onartzen dugun “errealitate” hori. Onartzen ez duena mundu intersubjektibo horretatik at geldituko da, eta errotz hartuko dugu seguraski.

Eguneroko bizitzako errealitatea, era berean, gainontzeko errealitateak baino gorago egongo da, errealitateA izango da. Eta errealitate hau kontzientzian ere inposatzen zaigu. Errealitate objektibatu hori ordena jakin bat (ordena natural bat) *duela* agertzen zaigu. Saillkapen hau hizkuntzaren bidez ematen da eta, ondorioz, nire gorputzaren “hemen”-ari eta denboraren “orain”-ari lotuta dago ezinbestean. Eta gainontzeko gizakiei ere lotuta egongo da, aipatu bezala gizarte errealitatea modu intersubjektiboan eraikitzen dugun heinean, *nire* esanahiak, definizioak... *besteen* definizio eta esanahiekin loturik egongo dira.

Objektu jakin bat ezagutzeko, bestalde, objektu horrengana zuzentzen gara, bai kanpoko zerbaiti buruz ari bagara eta baita ere barneko zerbaiti (edo mentala) buruz ari bagara ere. Kontzientziak, gainera, errealitate maila desberdinak bereizteko gaitasuna du; hala nola ametsen eta “zerbait erreala”-ren arteko banaketa.

Eguneroko bizitzako errealitatea, horrela, errealitate gisa pertzibitzen eta geureganatzen dugu. Prozesu honetan kontuan eduki behar dugu errutina kontzeptua. Errepikapenaren eta ohiturak geureganatzearen ondorioz (errutinen bidez) bizitza sozialari kutsu problematikoa kentzen diogu; hots, bizitza desproblematizatu egiten dugu. Bizitzako errutinak moztu gabe bata bestearen segidan gertatzen badira (normala den bezala) eguneroko bizitzak arazorik gabe jarraituko du, arazorik gabe ikusiko dugu. Baina errutina horien segidan haustura bat gertatuz gero, edo errutina bat gertatzen ez denean, arazo baten aurrean topatuko gara. Momentu honetan, hala ere, eguneroko bizitzaren errealitateaz baliatuz egoera problematiko hori ez-problematiko bihurtuko

dugu; hau da, egoera *berri* horri azalpen bat ematen saiatuko gara. Hau geure egunerokotasuna aurrera eramanez ahal izateko zutabe garrantzitsua da. Adibidez, nire pisura iristean eta pisukideak ez daudela ikustean (astelehen guztietan gertatzen den bezala) nire errutinak ez dira beteko, baina egoera hori berriro errealitatean kokatuko dut, egoerari azalpen *logiko* bat bilatuz: “Agian gaur Arte Ederretan festa dute eta ez dira bihar arte Bilbora etorriko”, etab... Egoerak ez-problematiko bihurtzearen mekanismo honetan sen arruntak ere eragiten duela begi bistakoa da.

Bestalde, eguneroko bizitzatik kanpo badaude beste errealitate batzuk; adibidez, erlijioarekin lotutako hainbat esperientzia, jokoak, errealitate propioak (inori konfesatzen ez diogun sekretu hori), etab... Baina errealitate hauek guztiek beren oinarria eguneroko bizitzako errealitatean dute. Bereziki aipatu beharrekoa da hizkuntzaren garrantzia. Lengoiaren bidez objektibatzen ditugu gure esperientziak, errealitateak. Eta lengoian oinarrituz egituratzen dugu erreferentzia oro (finean, erreal bezala kontsideratzen dugun oro hizkuntzaren bidez klasifikatu, geureganatu eta jabetzen dugu). Ildo honetan, Beger eta Luckmanek atal berezia eskaintzen diote gai honi, hizkuntzak eguneroko bizitzako jakintzan duen garrantziaren erakusgarri<sup>2</sup>.

Aipatu bezala, hizkuntzak giza espresibitatearen objektibazioa ahalbidetzen du; hau da, hizkuntzarik gabe ezinezkoa ezinezkoa izango litzateke errealitateaz jabetzea. Eta honekin batera, mundu amankomun bat ahalbidetzen dugu. Horrela, objektibaziora itzuliz, giza esperientzia, sentimendu, etab.ak objektuen bidez objektibatzen ditugu. Objektuak ez baitira soilik gizakion produktuak, gizakion subjektibotasunaren objektibazioak ere baitira. Adibidez, zapi palestinar bat eguzkitik babesteko sortua da, baina gaur egun borroka eta erresistentzia arabiarraren sinbolo ere bada; ondorioz, testuinguru jakin batean zapi hori jantzita eramateak zenbait esanahi daramatza berarekin. Beraz, signifkazioa (gizakiok sortutako zeinuei lotuta) eta “gaur eta hemengo” subjektibotasunaren artean bereizketa egin beharra dago.

Maila honetan dugu hizkuntza, eta gizakion zeinu sistemarik garrantzitsuena bezala ulertu behar duguna. Hizkuntzaren bidez konpartitu dezakegu eguneroko bizitza besteekin. Are gehiago, geure buruarekin berarekin eguneroko bizitzaz jabetu ahal

---

<sup>2</sup> Agerian geratzen denez, puntu honetan, beste hainbatetan bezala, ez dut liburuaren ordena bera jarraitzen.

izateko hizkuntza ezinbestekoa dugu. Hizkuntzak, gainera, “hemena” eta “oraina” gainditu ditzake; gaurkotasunari loturik egon daiteke, baina aldi berean egoera horiek gaindi ditzake, adibidez idazkeraren bidez, edota aldez aurreko komunikazioa gainditu telefonoaren, interneten... bidez. Hizkuntzak, era berean, eguneroko bizitzako errealitatea gainditzeko ahalmena du, sistema sinboliko konplexuak eraikiz (arte, filosofia, erlijioa, zientzia...). Finean, hizkuntzak biltegi handi baten moduan funtzionatzen du, gizarte baten jakintzak, esperientziak... bertan bilduz, horrela denboraren pasatzearen gainera belaunaldi berriei jakintza horien guztien transmisioa ahalbidetuz.

Honekin batera, hala ere, ez da ahaztu behar hizkuntza eguneroko bizitzan sortzen dela, nahiz eta berau gainditzeko gaitasuna izan. Aldi berean, zeinu sistema gisa hizkuntzak izaera objektiboa du: ni-tik bereizita agertzen da eta nirekiko duen efektua koertitiboa da. Hau da, nik ez dut hizkuntza aukeratzeko, nik ez dut hizkuntza sortzen... baizik eta hau guztia inposatzen zait. Eta are gehiago, hizkuntza bata edo bestearen arazoa gaindituz, kuestio hauek guztiak hizkuntzari berari aplikatzen badizkiogu. Hau da, hizkuntzarik gabe pentsamendurik izatea posible ahal litzateke? Ez. Bistan denez honek erlazio zuzena du aurrean planteatzen zenarekin: jada eraikitako mundu batera, errealitate batera, etortzen gara jaiotzerakoan.

Honek guztiak gizarte elkarrekintzaren aferara itzultzeko beta eskaintzen digu. Eguneroko bizitzan elkarrekintza batez ere (edo agerikoena dena) aldez aurre ematen da. Maila honetan bestearen subjektibitatea neurri handi batean neureganatu dezaket eta, momentu berean, bestearen *errealitasunaz* jabetu, ni baino errealago izatera iristeraino (finean, nire aurrean dago, ikusten dut...). Elkarrekintza tipifikazio jakin batzuek arautzen dute etengabe. Hau da, beste batekin nagonean badakit nola jokatu, zer esan, etab. Finean, elkarrekintza ez da egoera berri bat, egoera tipiko bat baizik (honek normaltasuna aurrera eramatea ahalbidetzen digu). Aurrean duguna tipifikazio horretan nola kokatzen dugunaren arabera desberdina izango da berarekiko jokabidea. Sailkapen honetan *continuum* bat dago, non mutur batean nire inguru hurbila dagoen eta bestean niretzako pertsona ezezagunak, anonimoak, direnak. *Continuum* honetan, era berean, kontuan izan beharreko elementuak “aldez aurreko harremana” eta “hemen eta orain” dira.

### **3. Gizartea errealitate objektibo gisa**

Berger eta Luckmannek instituzionalizazio prozesuaren azterketa sakona burutzen dute, erakundetzearen teoria bat planteatuz. Hau baino lehen, halere, animalien eta gizakien arteko desberdintasunak azpimarratzen dituzte. Azalpena sinplifikatuz, animaliek espezifikitate instintiboa duten bitartean, gizakiok inespezifikitate instintiboa dugu. Hau da, animaliek beraien ekintzak askoz ere aurre-determinatuagoak eta zehaztuagoak dituzte gizakiok baino, guk giro desberdinetara egokitze gaitasun handiagoa dugun bitartean. Instintuen espezifikitate horrek, ondorioz, inguruko espezifikitate batera daramatza animaliak, gizakiok ez bezala. Honek guztiak ondorio nagusi bat ematen digu ikuspegi soziologikotik: animaliak inguru natural batean mugitzen diren bitartean, gizakion ingurunea soziala eta kulturala da.

Gizarteko ingurune honetan garatzen du gizakiak bere ni-a; beraz, bere garapenean gizartearen interferentzia bat egongo da etengabe. Baina aldi berean ordena sozial hori gizakiaren produktu bat da. Ondorioz, gizakiaren auto-produkzioak izaera soziala du. Finean, gizakia eta gizartearen arteko dialektika dugu hemen. Honetan guztian ikusten da ordena soziala gizakiaren behar bat dela; hau da, ordena soziala ez da gizakiaren biologiatik eratortzen, baina gizakiaren organismoak egonkortasuna beharrezko duen heinean, gizakiaren biologiak berak sortzen du gizarte ordenaren beharra. Eta gizarte ordena bermatu eta iraunarazteko sortzen ditu instituzioak gizakiak. Hori dela-eta, aipatu bezala instituzionalizazio prozesua sakonki aztertzen dute autoreek.

Gizakiok ekintza bat maiz errepikatzearen ondorioz, ekintza hori ohitura edota pauta bat bilakatzen da; eta hauetatik tipifikazioak. Tipifikazio hauek gizartekoak bilakatzekoan erakunde edota instituzio bihurtzen da. Beraz, instituzio ororen sorkuntzan ohitzeko prozesu bat dago; hau da, gizarte bizitzan ezin izango genukeenez gelditu gabe, behin eta berriz erabakitzen egon (dena zalantzan egongo bailitzateke), gauza ugari jakintzat ematen dira, sinplifikatu ematen dira eta, horrela, gizarte bizitza erraztu eta posible egiten da.

Honekin batera, instituzioek historizitatea eta kontrola suposatzen dute. Historizitate kontzeptuarekin esan nahi da instituzio orok jatorri historiko zehatz bat

duela, gizarte eraikuntza bat diren neurrian. Kontrol izaerari dagokionez, bestetik, ez dugu ulertu behar koertzio edota biolentzia modura. Bitarteko hauek (bortitzak, koertzitiboak...) kontrol mekanismo osagarriak dira, instituzionalizazio mekanismoek huts egiten dutenean erabiltzen direnak. Gizarte batek zerbait ohikoa, naturala... ikusten badu (hots, egoera jakin hori instituzionalizaturik duenean) ez da erakunde hori aldatzeko posibilitateaz galderarik planteatzen ere. Instituzionalizazioa, beraz, kontrol mailarik gorenena da, auto-kontrola den heinean.

Instituzioak, ildo honetan, ni-tik kanpoko zerbait bezala ikusten ditugu, zerbait koertzitiboa bezala. Baina ni-ari inposizio bat suposatzen badiote ere, aldi berean gizakiaren produktu ere badira. Ondorioz, instituzioak zerbait objektiboa bezala erakutsiak dira (adibidez, belaunaldi berriei), baina ezin dugu ahaztu gizakiek eraikitako objektibazioak direla. Finean, eta jada aipatu bezala, instituzioen afera honetan gizaki eta gizartearen arteko harreman dialektikoa agerian dugu behin eta berriz, autoreek liburuan hiru urratsetan planteatzen dutena<sup>3</sup>:

- Gizartea gizakien produktu da.
- Gizartea errealitate objektibo bat da.
- Gizakia gizartearen produktu bat da.

Aurrean instituzioen kontrol izaeran sugeritu bezala, instituzioak gizartearen mantentzerako bitarteko nagusiak dira. Eta mekanismo hauek agerian ditugu gizarteratze prozesuan, non gizakia *gizarteaz bustitzen* baita. Ildo beretik, gizarteratze prozesuaren bidez instituzioen legitimitatea barneratzen da belaunaldi berrietan. Instituzioak, finean, jakintza batzuk ematen dizkigu gizakioi, errezeta batzuk, gizarte biziaren aurrera jo ahal izateko. Errezeta hauek betetzen ez dituen arazoak izango ditu, eta errotzat, tontotzat... hartua izango da.

Instituzioen iraupena sedimentazio moduan bermatzen da, hau da, aipatutako errezeta moduko ezagutza horiek estereotipo moduan gordetzen dira. Autoreen aburuz, sedimentazio hau intersubjektiboa bilakatuko da gizaki desberdinek biografia amankomun bat konpartitzen dutenean, eta soilik sedimentazio intersubjektiboaren objektibatzearen bidez (hau da, zeinu sistema batean bilakatzea) bihurtzen da sedimentazio soziala. Sedimentazio prozesu honetan Berger eta Luckmannek garrantzi

---

<sup>3</sup> Berger eta Luckmann, *op. cit.*, 82. or.

handia eskaintzen diote berriz ere hizkuntzari, instituzioen finkapenerako funtsezko papera duelarik lengoaiak. Bertan, sedimentazio kolektibo ugari ematen dira. Finean, prozesu honen bidez instituzioak bere legitimitatea irabazten du, beti ere garaile aterako delarik (mantentzearen zentzuan) baldin eta arazoak desproblematizatzeko gaitasuna baldin badauka; bere xedea –gizarte bizitza erraztea– betetzen badu.

Honekin batera, gizarte rolek garrantzi berezia dute. Rolak instituzioen eta gizakiaren arteko halako zubi bat dira: rol jakinen arabera jarduterakoan gizakiak mundu sozialean bere partaidetza bermatzearekin batera, gizartea bera barneratzen dute. Rolen eta instituzioen sorkuntza prozesua antzekoa da. Rolak, horrela, aktoreen ezagutza amankomunen tipifikazioak dira, testuinguruaren arabera; finean, rolak ere instituzionalizaturik daude eta, honekin batera, ordena instituzionala ordezkatu egiten dute (argi dagoenez euren iraupena ere bermatuz). Rolek, gainera, instituzio guztiak integratzen dituzte, orokortasun eta koherentzia bat eskainiz.

Bestalde, orain arte esandakoarekin aurkakoa badirudi ere, instituzionalizazioa ez da atzeratu ezin den prozesua. Baina gizarteko ikuspegi eta balio subjektiboek instituzioek zabalduko balio *objektiboekin* bat ez datozenean instituzionalizazio modu berriak ematea posible da. Instituzionalizazioak, halere, aurrean aipatutako gizarte-gizaki dialektika estaltzen du, eta gizakia produktu natural bezala ikustea eragiten du (behin eta berriz aipatu dugun bere izate soziala estaliz). Prozesu honi errefikazio deritzo, hots, produktu sozialak naturazkoak bezala ikustea; eta instituzioen arloan prozesu honen eraginez instituzioak zerbait natural bezala ikusiko dira. Errefikazioak, finean, errealitatearen izaera soziala estaltzen du, eta autoreek kaleko gizakiaren kontzientzian errefikazio hau hedaturik dagoela azpimarratzen dute.

Beste alde batetik, jada zerbait aipatu bada ere, legitimazioa afera garrantzitsua da instituzionalizazio prozesuan. Instituzioek beraiek gizarteko ordena bermatzeko funtzioa dute; baina, aldi berean, instituzioek iraun ahal izateko legitimazioaren beharra dute. Hau da, euren normalizazio eta kontrol funtzioak aurrera eramanez ahal izateko, gizakiek onartu behar dituzte instituzio horiek (onartu baino, natural bezala hartu, aipatu bezala, horrela beraien ezinbestekotasuna barneratuz eta alternatibak auto-ukatuz).



Legitimazioan bi funtsezko elementu ditugu: balioak eta ezagutza. Honekin batera, modu desberdinetan garatzen da, autoreek unibertso sinbolikoa azpimarratzen dutelarik. Unibertso sinbolikoan gizakiari berari dagozkion elementuak eta elementu amankomunak barne hartzen dira. Finean, norberari gertatzen zaizkion gauzak mundu amankomun edo sozialean kokatzeko xedea du unibertso sinbolikoak. Gainera, kontuan izan beharra dago unibertso sinbolikoak eguneroko bizitzatik at dauden errealitateak ere barne hartzen dituela. Honekin batera, norberaren biografiari koherentzia eta zentzua emateaz gain, unibertso sinbolikoak ordena instituzionala ere bermatzen du, prozesu instituzional desberdinen artean ere koherentzia bat eraikiz. Unibertso horiek beraiek, bestalde, mekanismo desberdinak dituzte (mitologia –autoreek bereziki azpimarratzen dutena-, filosofia, teologia, zientzia...).

Instituzio baten edo gizarte egoera baten ezegonkortasun handiaren (eta, ondorioz, egoera gatazkatsuen) erakusgarri argia izango litzateke unibertso sinboliko bakarraren nagusitasuna zalantzan jartzea (beste unibertso sinboliko bat aurrez aurre egotea). Hau instituzio batentzat arrisku handiena izango litzateke, bere ezinbestekotasuna (naturaltasuna) zalantzan jartzen baitu. Aldi berean, unibertso sinboliko desberdinen arteko talkak botere arazo bat erakusten du.

### **3. Gizartea errealitate subjektibo gisa**

Gizartea errealitate objektibo gisa aztertu ondoren, gizartearen beste errealitatea ere, alde subjektiboa, aztertzen dute autoreek. Ildo honetan, gizartea prozesu dialektiko gisa ulertu behar da, hiru urrats dituena: kanporatzea, objektibatzea eta barneratzea. Atal honetan errealitatearen barneratzea azalduko da. Barneratze prozesuaren bidez haurrak gizartea bereganatzen du, bere errealitate soziala eta esanahiak bereganatuz. Autoreek bi fase desberdintzen dituzte haurren sozializazioan, lehena eta bigarrena.

Lehenengo gizarteratzeak umearen hasierako urteak hartzen ditu barne eta beraren bidez gizakia gizartearen kide bilakatzen da. Bigarrena, aldiz, aurrerago ematen den edozein prozesu da, baina jada sozializaturik dagoen (gizartearen partaide den) gizaki batean ematen da. Lehenengo sozializazioa da garrantzitsuena, gizakiari bere bizitza sozialaren oinarriak finkatzen dizkiolako, izaki sozial bilakatzen duelako.

Barneratze prozesu berean gizartea, identitatea eta errealitatea barneratu egiten dira; barneratze prozesuaren bidez hauek subjektiboki bere egiten dituelarik gizakiak. Gizakiak “beste orokortua” barneratzen duenean (hau da, bere izaera autonomoa, besteen presentzia, ni-a bestea-rengandik bereiztea) bukatzen da lehenengo sozializazioa, gizartearen kide bilakatu den heinean. Sozializazioa, hala ere, heriotzarekin amaitzen da.

Bigarren sozializazioak, lehena amaitu ondoren eta hil arte ematen dena, instituzioen barneratzea suposatzen du. Maila instituzional bakoitzak bere eremu semantikoa (hizkera), arau sistemak, interpretazio bereziak, etab. ditu, eta hauek barneratu egiten dira sozializazioaren bigarren etapa honetan. Honekin batera, rol bereziak bereganatzen ditu gizakiak, bereziki azpimarratzekoa delarik lanaren banaketaren barneratzea. Era berean, sozializazio hau besteekiko komunikazioan ematen da (lehenengo sozializazioan garrantzia berezia dauka karga emozionalak, honetan aldiz identifikazioak). Bigarren sozializazio honen adibiderik garbiena hezkuntza izango litzateke.

Lehenengo eta bigarren sozializazioen artean halako koherentzia bat mantendu beharra dago. Bestalde, sozializazioa eta gizarte egituraren arteko harremana kontuan hartu behar da, gizakiak barneratzen duena (barneratzea eragiten zaiona) gizarte egitura horren arabera ere aldatuko delako.

Sozializazioak harreman estua du errealitatearen mantentzearekin. Autoreek mententze honetan bi mekanismo azaltzen dituzte: errutina eta krisia. Lehena, errutinarena, nahiko argi ikusten da eguneroko bizitzako errealitateaz esaten genuenarekin: Eguneroko bizitza errutinetan oinarritzen da, hau delarik instituzionalizazioaren oinarria. Baina errealitatearen mantenurako funtsezko tresna elkarrizketa da autoreentzat. Komunikazio osoa hartu behar da kontuan, komunikazio implizitua ahaztu gabe. Era berean, elkarrizketak errealitatea mantentzen du baina, aldi berean, errealitate bera aldatu egiten du une oro.

Sozializazioak, bestalde, aldaketarako aukera ematen du. Gizakia subjektiboki aldaketak izan ditzake. Aldaketa osoa, hots, jasotako sozializazioaren atal handiei uko egitea sozializazio berri baten mesedetan, alternazioa litzateke. Alternazioan lehenengo

sozializazioarekin antzekotasunak dituen birsozializazio bat eman beharko litzateke. Alternazioen adibiderik garbienak erlijio-konbertsioak lirateke.

Beste alde batetik, eta gizartearen alde subjektiboa ulertzeko, ezinbestekoa da nortasunaren afera kontuan izatea. Nortasuna edo identitatea prozesu sozialen eraginpean eratzen da eta, ondorioz, gizartearekiko harreman dialektikoa dauka. Ideia honekin, Berger eta Luckmannek ukatu egiten dute identitate kolektiboen existentzia. Ildo honetan, nortasunaren iraupena edota aldaketa prozesu sozialen menpe dago. Ezin dugu pentsatu nortasunean norberak eraikitako zeozer bezala, zerbait pertsonala (bakarrik) bezala: Finean, arazo psikologikoak sozialki definiturik daude. Autoreen ustez, psikologoek planteatu beharreko lehen galdera ea errealitatea zer den izan beharko luke.

Identitatearen osagai bat organismoa da, honek natura eta gizartearen arteko dialektika bat dagoela gogoratzen digularik: Adibidez, organismoak hainbat muga jartzen dizkigu (jan behar dugu, lo egin), baina muga batzuk gainditzea posible zaio gizakiari (horrela, jan eta pentsatzea posible zaio). Aldi berean, gizarteak ere aldaketak eragiten ditu organismoan (sexualitatean, jateko ohituretan, etab...). Horrela, errealitatea sozialki eraikia den heinean, organismoan ere aldaketak eragiten dira.

#### **4. Konklusio modura**

Berger eta Luckmannen liburu honek gizarte errealitatearen hainbat gako ematen dizkigu. Noski, eguneroko bizitzako eraikuntzan gizartearen papera argitzeko oso baliagarria da, normaltzat ematen ditugun eta kuestionatzen ez ditugun eguneroko bizitzaren hainbat atal kuestionatzeko baliagarria iruditu zaidalarik. Gizartea gizakiak eraikitzen duela eta, aldi berean, gizakia gizartearen produktu dela, hainbat adibiderek frogatzen dute autoreek. Baina, honekin batera, niri liburu honetatik interesgarriena iruditu zaidana errealitate normalizatuak (eguneroko bizitzakoak) kuestionatzeko bitartekoak eskaintzen dituela da eta, honekin batera, galdera berriak planteatzeko aukera.